

Arrantzale egunaren historia

Lehenengoa 1954an antolatu zuten, Juanito Balentziagak eta bere koadrilak

Arrantzale eguna garrantzitsua da Ondarroan, kostaldeko beste hainbat herritan bezala. Jendea kalea ateratzen da, mahoizko arropak eta abarketak jantzita. Giro berezia izan ohi da, eta itsas urdin kolorea da nagusi kalean. Arrantzale egunari buruz gauza gehiago jakiteko, Juanito Balentziaga ondarrutarrarekin izan gara.

Arrantzale eguna, lehen aldiz, 1954an ospatu zen. Juanito Balentziaga eta bere koadrila izan ziren hain berezia den egun honen sortzaileak. «Betidanik iruditu zitzaidan herriko jaiek zerbaiten beharra zutela, bereziki arrantzale giroko zerbaitena. Zerbait egiteko gogoa genuen, eta garai hartan, Aurrera Kirol Elkarteko lehendakaria nintzela, dirua behar genuen. Udalarekin akordio bat lortu genuen: diru laguntza baten truke, jaietan egun berezia prestatu behar genuen. Horrela sortu zen arrantzale eguna», azaldu digu Juanitok.

Lehen arrantzale eguna 12.640 pezeta inguru kostatu zen. «Egun zoragarria eta borobila izan zen: sokamuturra, txistulariak, antzarak, kukaña, trenerilak, bodegetako marmitako jana, karrozak, tanborrada... Egun osoan herri guztia kalean, saltoka, abesten, urdinez jantzita. Izugarritzko arrakasta izan zuen», dio Balentziagak.

San Pedro eguna

Ondarrutar honek esan digunez, lehen arrantzaleen eguna, San Pedro eguna, ekainaren 29a izaten zen. Itsasontzi handiagoak egin zituztenean, orde, arrantzaleak urrutirago joaten ziren eta jaia galdu egin zen. Imanol Oruemazaga



Lehen arrantzale eguna 12.640 pezeta inguru kostatu zen: sokamuturra izan zen, txistulariak, antzarak...

Ondarroara etorri zenean, orde, San Pedro eguna berreskuratzea pentsatu zuen. Horretarako, herriko gazteekin hitz egin zuen eta jai herrikoiak eta batasunezkoak egitea lortu zuen. «Urte batzuetan kristoren jaiak egiten ziren: kalejirak, mozzorroak, zezen pantomimak... Baina, urte batzuen ondoren, hori guztia apurtu egin zen», Balentziagaren esanetan. Aurretan, San Pedro egunaren inguruan, Bolo Bolo aldizkariak Zapato Azule arrantzale giroko jaia antolatu zuen, bigarren aldiz, ekainaren 26an.



Goian, Balentziagaren koadrila, hasieretako arrantzale egunean. Behean, Juanito Balentziaga (lehen ezkerretik hasita), Balentziaga jostuna bezala mozzorrotuta.

Bestalde, Balentziagak gogoratzen duenez, —bera umea zela— antzara jokoak abuztuaren 15ean eta 16an egiten ziren, jaiak 14tik 16ra izan ohi ziren eta 17an arrantzaleak itsasora joaten ziren. «1957an arrantzale eguna abuztuaren 17a izatea pentsatu genuen, jai herrikoiak

izatea nahi genuelako eta arrantzaleek merezi zutelako horrelako egun bat. Arrantzale eguna Abuztuaren 17an finkatzea zen gure helburua. Udalak ezetz esan zuen hasieran, baina, nolako jaia egin nahi genuen ikusi zutenean, baiezkota eman zuen».

Balentziagaren ustez, jaie-

Karrozak eta polizia

Aipagarria da arrantzale eguna zela eta Juanito Balentziaga Bilboko Poliziaren buruzagitza nagusira joan behar izan zuela. Bertan azaldu ziotenez, poliziak lau gutun anonimo jaso zituen esanaz arrantzale egunean antolatu zituzten karrozak subertsiboak zirela. Lau karroza prestatu zituzten orduan. Lehen Ondarroako frontoia zen, ezpata-dantzari, pelotari eta udaletxe-ko banderarekin. Bigarrena antzinako oholtza zen, sare konpontzaile, euskal dantzari eta bainu-jantziak zituzten ume batzuekin. Hirugarrena Zubi Zaharra zen: batel handi bat, arraun batzuk, arrantzaleak eta kofradiako banderak. Azkenik, laugarrena karroza zuri handi bat zen, jaiko erregina, erreginarekin eta oho-rezko damarekin. karrozen atzetik, danborrada handia. «Agian norbaitek gerriko berdea-edo eramango zuen. Nik poliziari arrantza-leen jai bat zela esan nion, eta azkenean ez zen ezer gertatu», dio Balentziagak.

tan antzinako giro berezia falta da. «Lehen nahikoa zen tabernan hiru lagun abesten hastea jende guztiak abesteko. Gaur egun, aldiz, musika altuegi egoten denez, ezin da abestu. Jendeak abesteko ohitura galdu egin du. Txistulari aldra asko ere izaten ziren, eta giro berezia sortzen zuten. Antzinako jaiak beste era bateko jaiak izaten ziren», dio etsipen puntu batez Balentziagak.

CORDEVI

ARRIOLA

ELEKTRAGAILUETAN ADITUAK

ELEKTRAGAILUAK

T.B.-HIFI-BIDEOA

Kanttoipe, 11

Tel.: 946 83 07 97 / 946 83 02 52

ONDARROA



LANKEI

BULEGO EKIPAMENDU OSOAK

118 P.k. - 48700 ONDARROA

ZENTRALA ETA ERAKUSKETA

Gardotza Industriegunea
"R" Partzela - B-3 Pabilioia

48710 BERRIATUA

Tel.: 94 613 40 37 - 94 613 40 54

Faxa: 94 613 40 28

DENDA ETA KOPIATEGIA

Iñaki Deuna, 31 behea

48700 ONDARROA

Tel.: 94 683 34 14

Faxa: 94 613 40 81

Egunkaria k

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!!

